



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko martxoaren 13a

39. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—11-24/CCO-00007. Kontuen Ganberak “Burlatako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**11-24/CCO-00007. Kontuen Ganberak “Burlatako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

2024ko otsailaren 12an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Burlatako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publikoa eta dirulaguntzak” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Adieraztea Burlatako Udalaren 2022ko langileria, kontratazio publiko eta dirulaguntzei buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**AURKIBIDEA**

I. SARRERA .....	4
II. HELBURUA ETA NORAINOKOA .....	4
III. IRITZIA, SALBUESPENEKIN .....	5
IV. IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN.....	5
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK .....	5
VI. BURLATAKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA.....	5
VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	6
VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK .....	6
1. GEHIGARRIA. BURLATAKO UDALA .....	7
1.1 Informazio orokorra .....	7
1.2 Egindako jarduerak .....	9
2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	10
3. GEHIGARRIA. BETETZEAREN FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK .....	11
3.1. Langileak.....	11
3.2 Udalaren kontratazio publikoa.....	13
3.3 Transferentzia arruntetako eta kapital-transferentzietako gastuak.....	15
3.4 Next Generation funtsak.....	17
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK .....	18
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA	21

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2023ko bere jarduketa-programari jarraikiz, langileen, kontratazio publikoaren eta dirulaguntzen arloan Burlatako Udalarari 2022ko ekitaldian aplikatzekoa zaion legeria betetzearen fiskalizazioa egin du.

Landa-lana 2023ko urrian eta azaroan egin zuen auditoria-teknikariz eta auditore batez osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan laguntzarekin.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak Burlatako Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, alegazioak aurkez zitzan. Ezarritako epean alkateak alegazioak aurkeztu ditu, eta txosten honetan jaso dira, Ganbera honen erantzunarekin batera.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Burlatako Udaleko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emandako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitzaren biribiltzea, eta ez datu biribilduen batura.

## II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Gure lanaren helburua da iritzia ematea ea honako gai hauei dagokienez Burlatako Udalak 2022ko ekitaldian zehar egindako jarduerak bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, aplikatzekoa den arau-esparruarekin:

- Langileria: alderdi orokorrak, nominen ordainsarien analisia eta enplegu publikoa egonkortzeko prozesuaren berrikuspena.
- Kontratazio publikoa: kontratazioa munta txikiko araubidean eta kontratu egokirik gabeko prestazioak.
- Zuzeneko emakidaren araubidearen bidezko dirulaguntzak.
- Diru-zuzkidura Udaleko talde politikoei.

Era berean, Udalak emandako datuen arabera, zenbatu egin ditugu Next Generation Funtsetatik jasotako dirulaguntzak eta horiei lotutako gastuak.

Fiskalizazioaren norainokoak barne hartzen ditu txosten honen 3. gehigarrian aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketak.

Gure lanaren norainokoak ez ditu barne hartzen erakunde autonomoak eta Udalaren menpeko gainerako erakundeak.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2022ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

### **III. IRITZIA, SALBUESPENEKIN**

Nafarroako Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion esku-menak erabiliz, legezketasun-fiskalizazio bat egin du Burlatako Udalaren 2022ko ekitaldiko langileriari, kontratazio publikoari eta dirulaguntzei buruz.

Gure ustez, eta gure lanaren norainokoa aintzat hartuta, gure txostenaren "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean azaldutako zertzeladen eraginengatik izan ezik, langileen, kontratazio publikoaren eta dirulaguntzen arloan Burlatako Udalaren 2022ko ekitaldiari dagozkion jarduera aztertuak bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

### **IV. IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN**

Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arrunten kontratazio publikoaz bezainbatean, haute-man dugu Udalak 0,86 milioiko gastua egin zuela (2. kapituluko gastuaren ehuneko 24) hamar kontratistarekin hainbat prestaziorengatik, baina ez ditu legez eskatutako lizitazio-prozedurak egin kontratuen balio zenbatetsia kontuan hartuta. Aipatu gastuaren ehuneko 83 gas- eta elektrizitate-hornidurei dagozkie.

Fiskalizazioa egin dugu kanpo-kontrolako erakunde publikoen funtsezko fiskalizazio-printzipioei jarraituz eta, zehazkiago, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioen gaineko ISSAI-ES 400 arauari jarraituz, bai eta kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio gida praktikoei (GPF-OCEX) jarraituz ere. Arau horien indarrez dugu erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, txosteneko "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean hain zuzen ere.

Legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioan aplikatu behar ditugun eskakizun etikoekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du gure iritzia salbuespenekin adierazteko.

### **V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK**

Auditoretzako gai giltzarriak dira gure iritzi profesionalaren arabera munta handiena izan dutenak aztertutako aldiko legeriaren betetzeaz egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek jorratu ditugu egin dugun fiskalizazioaren testuinguruan, eta ez dugu horiei buruzko iritzi bereizirik adierazten.

Txosten honetako "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean azaldutako alderdiak salbu, erabaki dugu gure fiskalizazioan ez dagoela jakinarazi beharreko gai giltzarriak.

### **VI. BURLATAKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA**

Burlatako Udalaren Idazkaritzak eta Kontu-hartzaitzak bermatu behar dute fiskalizatutako arloetako jarduerak bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin.

Era berean, Udalaren erantzukizuna da beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezartzea, bermatuko dutenak egindako jardueran ez dagoela ezer legez kanpokorik.

## VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburuak honako hauek dira: arrazoizko segurtasun bat lortzea Udalak 2022ko ekitaldian fiskalizatutako gaietan egindako jardueretan ez-betetze esanguratsurik ez egoteaz, eta betetzearen fiskalizazio-txosten bat egitea, gure iritzia jasotzen duena.

Zentzutasunezko ziurtasuna ziurtasun maila handia da, baina horrek ez du bermatzen fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti harrapatuko duenik muntazko ez-betetze bat, halakorik egonez gero. Ez-betetzeak iruzur edo akatsen ondorio izan daitezke, eta materializat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta.

Kanpo kontroleko organoen fiskalizazio-jarduerari buruzko araudiari jarraituz eginiko fiskalizazio baten atal gisa, gure irizpide profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan zehar. Gainera:

- Iruzur edo akatsen ondoriozko ez-betetze muntazkoetarako arriskuak identifikatu eta baloratzeko, auditoretza-prozedurak diseinatu eta aplikatu ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta auditoretza-ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia oinarria emateko. Ez-betetze esanguratsu bat iruzurraren ondoriozkoa denean, hori ez detektatzearen arriskua handiagoa da errearen ondoriozkoa denean baino; izan ere, iruzurraren osagai izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, apropos eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.

- Barne-kontrola dela-eta fiskalizaziorako muntazkoa den ezagutza lortzen dugu inguruabarren arabera egoki diren auditoretza-prozedurak taxutze aldera, eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzirik emate aldera.

- Ebaluatzen dugu prozedurak egokiak diren, bai eta kudeaketa-organismoak emandako informazioaren arrazoizkotasuna ere.

Erakundearen gobernu-organismoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, jorratze aldera planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta horiek egiteko unea, auditoretzaren aurkikuntza esanguratsuak eta barne-kontrolari dagokionez fiskalizazioan zehar identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri. Entitateko gobernu-organismoari jakinarazi zaizkion zertzeladen artean, zehazten dugu zein izan diren betetzearen fiskalizazioan munta handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzan giltzarri izan diren gaiak.

## VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK

Langileria, kontratazioari eta dirulaguntzei buruz eginiko betetze-fiskalizazioko lanaren emaitza gisa, Ganbera honek gomendatzen du:

- *Adjudikazio-prozedura egokiaren bidez lizitatzea eta adjudikatzea balio zenbatetsia aintzat hartuta munta txikiko kontratazioaren prozeduraren bidez izapidetu ezin diren hornidura- eta zerbitzu-kontratu guztiak.*

- *Hiru hilez behin argitaratzea munta txikiko kontratazioaren prozeduraren bidez adjudikatzen diren kontratuak.*

- *Dirulaguntzen arudian nahitaez eskatzen den Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onestea.*

Beste gomendio gehigarri batzuk jaso ditugu 3. gehigarrian, fiskalizazioko beste ohar eta aurkikuntza batzuei buruzkoan.

Miguel Ángel Aurrecochea Gutiérrez auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2024ko otsailaren 6an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

## 1. GEHIGARRIA. BURLATAKO UDALA

### 1.1 INFORMAZIO OROKORRA

Burlata Iruñerrian kokatuta dagoen udalerrria da. 2,15 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 20.398 biztanle zeuzkan 2022ko urtarrilaren 1ean.

Udal antolamendua besteak beste organo hauek osatzen dute: Osoko Bilkurak, Tokiko Gobernu Batzarrak eta Alkatezak. Gainera, lau batzorde informatibo daude.

Udalak, zerbitzu publikoak kudeatzeko, honako erakunde hauek sortu ditu:

- Erakunde autonomoak (EEAA aurrerantzean):

- Kirol Patronatua
- Kultura Patronatua

Bi erakunde autonomo horiek 2023an desagertu ziren, Toki Entitateen Erregistroan baja hartu baitzuten 2022ko abenduaren 31n.


- Merkataritza-sozietateak:

Udalak partaidetzaren gehiengoa dauka honako merkataritza-sozietate hauetan:

Enpresa	Partaidetza (%)	Xede soziala
Burlatako Udalaren Hirigintzako Sozietatea, SL	100	Hirigintza
Bizkarmendia elkarte SLU	100	0-3 haur eskolako zerbitzua eman eta kudeatzea
Erripagaña Desarrollo Urbano elkarte SL*	51	Etxebizitzak sustatzea eta birgaitzea

\* Elkarte horrek gaur egun ez du jarduerarik. Behin zain dagoen auzi bat ebatzita, hura desegitea eta likidatzea aurreikusita dago.

Udalak bere kontuetan sartzen ditu erakunde autonomoak eta sozietate publikoak.



2022ko ekitaldia ixtean, Udalaren funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Administrazioaren Sektore Publikoa:

Entitatea	Aitortutako eskubi-deak	Aitortutako bete-beharrak	Langileak, 2022-12-31n*
Udala	18.084.884	17.201.274	161
Kirol Patronatua	545.437	805.040	34
Kultur Patronatua	2.489.502	2.667.577	4
- Bateratzearen doitzeak	-1.046.694	-1.046.694	
<b>Bateratua, guztira</b>	<b>20.073.129</b>	<b>19.627.198</b>	<b>199</b>

\* Enplegu sozial babestuko 9 langile barne hartzen ditu, eta 21 langile enplegatuta daude "Interes Orokor eta Sozialeko Obrak" programan, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren finantzaketarekin.

2022an, Udalak transferentzia arrunteei dagozkien 854.718 euro eman zizkien erakunde autonomoi, eta kapital-transferentziei dagozkien 191.976 euro.

Enpresen sektore publikoa

Sozietate publikoa*	Negozio-ko-puru garbia	Ekitaldiko emaitzak	Udalaren dirulaguntzak**	Epe luzeko zorpetzea	Ondare garbia	Batez besteko plantilla, 2022
Burlatako Udalaren Hiri-gintzako Sozietatea, SL	214.111	-123.186	82.634	0	12.336.989	1
Bizkarmendia elkartea SLU	553.762	0	0	0	3.129	20

\* Kontuen Ganberak ez ditu ikuskatu kontu hauek.

\*\* Kapitaleko dirulaguntzak ekitaldiko emaitzetara egozteari dagozkion zenbatekoa.

2022an, Udalak ez zion finantzaketarik eman sozietate horiei.

Udalak, halaber, honako mankomunitate hauetan parte hartzen du:

- Iruñerriko Mankomunitatea, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen bilketa eta tratamendukoak, eta eskualdeko hiri garraiokoak.
- Hilarión Eslava Udal Eskolako partzuergoa. Burlata eta Atarrabiako Udalek osatzen dute partzuergoa, baina Burlatako Udalaren jabetzako eraikin batean egiten du bere jarduera.

2022ko ekitaldian, Udalak erakunde horiei egindako ekarpenak 810.730 euroko gastua ekarri zion, xehetasun hauekin bat:

Aitortutako betebeharrak, 2022	
Iruñerriko Mankomunitatea	480.682
Hilarión Eslava Musika Eskolako partzuergoa	330.048
<b>Guztira</b>	<b>810.730</b>



## 1.2 EGINDAKO JARDUERAK

Udalak emandako informazioaren arabera, Udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta horiek emateko modua honako hauek dira:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa			Zeharkako kudeaketa: zerbitzu-kontratua	Mankomunitatea
	Udala	Erakunde autonomoak	Enpresa publikoa		
Argiteria publikoa	X				
Hilerria	X				
Hiri-hondakinak bildu eta tratatzea					X
Bide-garbiketa	X				
Uraren ziklo integrala					X
Estolderia					X
Parke publikoa	X			X	
Hiriguneetako sarbidea eta zoladura, bide publikoen eta udal-eraikinen mantentze-lanak	X				
Liburutegia-ludoteka	X				
Gizarte zerbitzuak	X			X	
Kirol-instalazioak eta kirola eta aisia sustatzea		X			
Bidaiarientzako hiri barruko garraio kolektiboa					X
Hirigintza, eraikinen zaharberritzea eta jasangarritasuna	X		X	X	X
Udaltzaingoa	X				
Suteen prebentzioa eta itzaltzea	X				
Kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak		X			
Ikastetxe publikoak mantentzea	X				
Bake Epaitegiaren mantentze-lanak	X				
Berdintasunaren sustapena	X				
Hezkuntza: 0-3 urtekoen ikastetxeak eta haur-liburutegia	X		X		
Gazteria: Gazteriaren etxea	X				
Etxebizitza	X		X		
Merkataritza eta azoka txikia sustatzea	X				

## 2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Udalari aplikatzekoa zaion arau-esparru nagusia honako hau da:

### **Estatuko araudia**

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa.

### **Foru araudia eta tokikoa**

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.
- Aurrekontua betearazteko oinarriak.
- Ordenantzak.

### 3. GEHIGARRIA. BETETZEAREN FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Gambera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere.

Orobat gehitu ditugu Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkotzat hartzen diren gomendioak.

#### 3.1. LANGILEAK

Langile-gastuak 7,87 milioikoak izan ziren, eta ekitaldian sortutako gastu guztien % 46 egin zuten. Honako taulan ematen da gastu horren xehakapena:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak, 2022
Gobernu-organoen eta zuzendaritzako langileen ordainsariak	59.466
Behin-behineko langileen ordainsariak	53.294
Funtzionarioen ordainsariak	3.654.817
Lan-kontratudun langileen soldadak	1.375.375
Kuota, prestazio eta gastu sozialak	2.731.870
<b>Guztira</b>	<b>7.874.822</b>

#### Plantilla organikoa

2022rako Udalaren plantilla organikoa eta 2021eko abenduaren 31n zeuden langileen zerrenda 2022ko uztailaren 19an argitaratu ziren behin betiko, Nafarroako Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean NAO). Hala ere, gero, plantilla organiko hori aldatu zen, 2023ko ekainean eta 2023ko urrian.

2023ko ekitaldian aurreko ekitaldiko aurrekontuak luzatu ziren. 2023ko aurrekontuak onetsi ez zirenez, ez zen onetsi aipatu ekitaldiko plantilla organikoa, ezta 2022ko abenduaren 31n zeuden langileen zerrenda ere.

Lanpostuak, 2022ko ekitaldia ixtean indarrean zegoen plantillaren arabera, honako hauek dira:

Sailkapena	2022
Langile funtzionarioak	135
Lan-kontratudun langileak	3
Behin-behineko langileak	1
<b>Guztira</b>	<b>139</b>

Plantillako lanpostuetatik, ehuneko 97 funtzionario-araubidekoak dira, ehuneko bi lan-araubidekoak, eta ehuneko bat behin-behinekoak.

Honako hau zen lanpostuen egoera 2022ko abenduaren 31n:

Langileria	2022
Plantillako lanpostuak	139
Beteta	78
Hutsik	61
Lanpostu hutsen % lanpostu guztien gainean	% 44
Betetako lanpostu hutsak	57
Bete diren lanpostu hutsak (%)	% 93
Bete gabeko lanpostu hutsak	4
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	% 7

2022an, plantillako lanpostu guztien ehuneko 44 hutsik zeuden; horietatik ehuneko 93 aldi baterako beteta zeuden, eta gainerakoak, ehuneko zazpi, artean bete gabe. 2022ko abenduaren 31n, behin-behinekotasunaren indizea, betetako lanpostu hutsen eta modu finkoan edo aldi baterako betetako plantilla-lanpostu guztien arteko zatidura gisa kalkulaturik, ehuneko 42koa zen.

### Egonkortzearen azterketa

Enplegu publikoaren egonkortze prozesua aztertu dugu aintzat harturik zer betekizun eta epe ezartzen diren uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legean, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoan. Udalak, 2022ko urriaren 27ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez, partzialki atxiki zen foru lege horren II. tituluaren aplikaziora.

Honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- Udalak 40 lanpostu egonkortzeko lan-eskaintza publiko bat (LEP, aurrerantzean) onetsi zuen, 2022ko maiatzaren 21eko NAO-n argitaratua eta, horrenbestez, araudiak ezarritako epemuga beterik, zeina 2022ko ekainaren 1a baitzen. Azkenean LEPa 39 lanpostukoa izan zen, Lan-arloko epaitegian lanpostu bat LEP horretan ez sartzea baiestearen ondorioz.

- Ondoren, lanpostu horiek betetzeko deialdiak 2022ko abenduaren 5ean argitaratu ziren, araudiaren arabera, epemugatzat 2022ko abenduaren 31 zehazten baitzuen.

- Aurreko 39 lanpostu horietatik, 36 sartuta daude merezimendu-lehiaketaren hautaketa-sisteman, eta hiru, oposizio-lehiaketaren sisteman.

- Lagin batean egiaztatu dugu ezen sartuta dauden lanpostuek bete egiten dituztela araudian ezarritako baldintzak.

- Txosten hau idazteko garaian, 36<sup>1</sup> enplegatu publiko jabetu dira lanpostuaz. Gainerako kasuan, aurreikusita dago 2024ko martxotik urrira egitea.

- Udalak proiektio bat egin du deitutako lanpostu guztiak betez gero eta erretiroagatiko baja posibleak kontuan hartuz gero egonen litzatekeen behin-behinekotasunaren ehunekoaz. Tasa hori ehuneko 6,9koa litzateke. Hautapen-prozesu horiek 2024ko abenduaren 31 baino lehen ebatzi behar dira, data horretarako bete behar baita legez aurreikusitako helburua; hots, aldi baterako kontratuak egiturazko lanpostuen ehuneko zortzira murriztea.

### Langileria-gastuen egiaztapenak

2022ko urrian 134 pertsonarentzat 276.502 euroko zenbatekoarekin sortzapena izan zuen nominako ordain-kontzeptuen lagin bat aztertu dugu.<sup>2</sup> Zenbateko horrek aztertutako hilabeteko nominaren gutzizkoaren ehuneko 75 egiten du.

Aurreko azterketan egiaztatu dugu ordainsari-kontzeptu guztiak bat datozela plantilla organikoan aurreikusitakoekin, eta pertsona bakoitzari zuzen ordaindu zaizkiola betetzen duen lanpostuaren eta inguruabarren arabera, honako egoera hauetan izan ezik:

- Bi langileri ordaindutako ordainsariak zuzenak izan badira ere, inkoherentziak hauteman ditugu ordainsari-osagarrietan, akats baten ondorioz ez baitatoz bat plantilla organikoaren langile-zerrendan jasota datorren ehuneko eta langileen zerrenda izendunaren dokumentukoa.

- “Izendapena” izeneko osagarri bat esleitu da zenbait enplegatu publikori funtzio jakin batzuk betetzea ordaintzeko, horretarako erabiliz alkatetzaren ebazpen bidezko behin-behineko izendapena. Horiek zerrenda gisa txertatu dira plantilla organikoarekin batera doan arau osagarrien dokumentuan.

<sup>1</sup> Alegazioetako “**langileei dagokienez**” apartatuaren laugarren paragrafoak aldatutako testua.

<sup>2</sup> Oinarrizko soldata, antzinasuna, gradua eta lanpostuaren osagarriak, maila, behin-behineko izendapena eta prestasuna.

Hauteman dugu behin-behineko izendapen bat ez datorrela bat 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 32. artikuluan ezarritako kasuarekin<sup>3</sup>, zeinak aurreikusten baitu funtzionarioak behin-behinekoz aritu ahalko direla haien maila bereko eta kategoria bereko edo goragoko lanpostu batean. Aipatu izendapen hori behin-behineko funtzioak gauzatzeko onartu da, baina ez dira lanpostu gisa konfiguratu plantilla organikoan.

- Ganbera honek 2018ko ekitaldiaz egindako txostenean nabarmendu egin genituen udaltzaingoaren presentzia kontrolatzeko sisteman agerian jarritako hutsuneak. Txosten hau emateko garaian, oraindik ere badaude hutsune horiek.

Horren guztiaren ondorioz, gomendio hauek egiten ditugu:

- *Plantilla organikoko lanpostuen zerrendan agertzen diren ordainsari-osagarrien kuantifikazioa berrikustea, langileen izen-zerrendan agertzen den informazioan inkoherentziarik egon ez dadin.*

- *Behin-behineko izendapenera jotzea lanpostuen barne-betetzea egiteko mekanismo gisa bakarrik araudian aurreikusitako kasuetan.*

- *Jardunbide egokiak ezartzea tokiko poliziako lanaldiaren kontrol eta jarraipenerako.*

### 3.2 UDALAREN KONTRATAZIO PUBLIKOA

2022ko ekitaldiko ondasun eta zerbitzuengatikoko gastu arruntak 3,58 milioikoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 21 egiten dute. Honako taula honetan azaltzen da gastu-banaketa 2022an:

Artikulua	Aitortutako betebeharrak, 2022
Errentamenduak eta kanonak.	275.775
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa.	472.076
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	2.740.769
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak.	90.109
<b>Guztira</b>	<b>3.578.729</b>

Bestalde, 2022ko inbertsio-gastuek 3,39 milioi egin zuten. Kopuru horrek gastu guztien ehuneko 20 egiten du, jarraian azaltzen den moduan banatua:

Artikulua	Aitortutako betebeharrak (2022)
Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetako inbertsio berriak	1.253.509
Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunak lehengoratzeko inbertsioak	42.610
Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako inbertsio berria	1.951.569
<b>Guztira</b>	<b>3.390.999</b>

<sup>3</sup> 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuari buruzkoa.

Gure lana munta txikiko kontratazioa eta kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak aztertea izan da, bi gastu-kapituluetan. Fiskalizazio-lagina hautatzeko, lehenik, kontratista guztien kopurua eta haien gastua bildu dugu, hala 2. kapitulurako nola 6. kapitulurako. Honako hau da informazioa:

Kapitulua	Kontratista-kop.		Gastua (2022)	
	Lizitazio-prozedurarekin	Munta txikiko araubide berezia	Lizitazio-prozedurarekin	Munta txikiko araubide berezia
2. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	12	424 <sup>(1)</sup>	496.602	3.082.127
6. Inbertsioetako gastuak	13	139 <sup>(2)</sup>	2.268.848	1.122.151

(1) Horietatik, 357k ekitaldian 3.750 euro (BEZik gabe) baino gutxiagoko gastua dute.

(2) Horietatik, 11k ekitaldian 15.000 euro (BEZik gabe) baino gutxiagoko gastua dute.

Munta txikiko kontratuen araubide bereziaren bidezko gastua egin zuten kontratista guztien artean honako lagin hau hautatu dugu:

Kapitulua	Kontratista-kop.	Gastua (2022)
2. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	31	2.306.381
6. Inbertsioetako gastuak	17	559.432

2. kapituluaren kasuan, hautatutako laginak munta txikiko araubide bereziaren gastuaren ehuneko 76 egiten du, eta 6. kapituluari dagokionez, ehuneko 50.

### Munta txikiko kontratazioa

- 2. kapitulua: ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak:

Egiaztatu dugu munta txikiko kontratuen araubide bereziaren bidez izapidetutako honako prestazio hauek daudela, guztira 0,86 milioiko gastua jo zutenak. Aztertutako kontratu bakoitzaren balio zenbatetsiaren arabera, kontratazioa dagokion esleipen-prozeduraren bidez lizitatu behar zen.

Prestazioaren deskribapena	Faktura-kopuruak	Gastua (2022)
Argindarraren hornidura	279	540.849
Gasaren eta argindarraren hornidura	69	173.795
Lorategien mantentze-lanak	28	40.112
Telefonia	343	30.255
Banaketa eta jakinarazpenak	5	24.011
Lan-aholkularitza*	7	18.025
Herriko jaietako garbiketa indartzea	2	11.226
Usoen kontrola	12	10.454
Aholkularitza juridikoa	5	9.075
Datuen babesa	2	4.598
<b>Guztira</b>	<b>752</b>	<b>862.400</b>

\* 2022ko apirilean adjudikatu zen zerbitzua

Ez da ageri kontu-hartzaitzak eragozpenik jarri izana.

- 6. kapitulua. Inbertsio-gastuak

Kasu honetan, ikusi dugu aztertutako gastua egokiro izapidetua izan zela munta txikiko kontratuetarako araubide bereziaren bidez.

- Kontratazio hauek argitaratzea

Udalak ez du argitaratzen esleitu diren munta txikiko kontratuen hiruhilekoko informazioa, esleipen-hartzailearen eta zenbatekoaren identifikazioarekin.

### 3.3 TRANSFERENTZIA ARRUNTETAKO ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIETAKO GASTUAK

2022an, transferentzia-gastuak 2,36 milioioak izan ziren; kopuru horrek gastu guztien ehuneko 14 egiten du, honela zehazturik:

	Transferentzia arruntak	Kapital-transferentziak
Erakunde autonomoak	854.718	191.976
Nafarroako Foru Komunitatea	3.943	
Toki entitateak	805.594	5.136
Enpresa pribatuak	5.384	
Familiak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak	484.023	5.952
<b>Guztira</b>	<b>2.153.662</b>	<b>203.064</b>

Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa eta zuzeneko emakidaren araubidearen bidezko dirulaguntzak aztertu ditugu, baita udal-taldeentzako ekarpenak ere.

#### Dirulaguntzen plan estrategikoa

Udalak ez du dirulaguntzen plan estrategikorik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta Udalaren Osoko Bilkurak 2021eko uztailean onetsitako Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak kontrakoa agintzen badute ere.

#### Dirulaguntzen lagin baten azterketa

Udalak emandako informazioaren arabera, zuzeneko emakidaren araubidezko dirulaguntzak 2022an honako hauek izan ziren:

Dirulaguntza	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak (2022)
Katu-koloniak mantentzeko hitzarmena	5.500	4.338
Oxfam Intermonek "Elikagaien segurtasuna eta ekoizpen-kateamendua Guatemalako korridore lehorrean"	6.000	6.000
Medicus Mundi	200	200
Arua elkartasuna	687	687
Cáritas, San Blas parrokia	400	400
Cáritas, San Joan parrokia	1.936	1.936
Coopera GGKEa, "SOS Ukraina proiektuan garapenerako lankidetzaz egiteko gazteak"	12.500	12.500
<b>Guztira</b>	<b>27.223</b>	<b>26.061</b>

Honako lagin hau aztertu dugu:

Onuraduna	Zenbatekoa, 2022
Katu-koloniak mantentzeko hitzarmena	4.388
Coopera GGKEa, "SOS Ukraina proiektuan garapenerako lankidetzaz egiteko gazteak"	12.500
<b>Guztira</b>	<b>22.888</b>

Aurreko azterketatik honako akats hauek egiaztatu ditugu:

- Katu-koloniak mantentzeko hitzarmena. Espedientean ez dago jasota alor kudeatzaileak egin-dako txostena, onuradunak aurkeztutako justifikazioari buruz egindako egiaztapenen berri ematen duena.

- Coopera GGKEa “SOS Ukraina proiektuan garapenerako lankidetzak egiteko gazteak”. Udalak eta GKEak sinatutako hitzarmenean ezartzen da horrek aurkeztu beharko duela diruz lagundutako jarduerarekin zerikusia duten gastuen eta diru-sarreraren justifikazio-kontua. Gastuen xehetasun bat baino ez da aurkeztu, eta Ganberak eskatuta, fakturak edo dokumentu baliokideak aurkeztean ez da eskatu jarduerari lotuta egon daitezkeen diru-sarreraren egiaztapena.

- Azterturiko dirulaguntzen ematea ez da argitaratu Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean.

Gure ondorioak aintzat hartuta, VIII. epigrafean jada formulatutako gomendioez gain, hauxe gomendatzen dugu:

- *Dirulaguntzak arautzen dituzten hitzarmenetan ezartzen den agiri bidezko justifikazio guztia eskatzea, dirulaguntzen ordenantza orokorrak eskatzen duen bezala.*

- *Onuradunek gastuak eta diru-sarrerak justifikatzeko txantiloiak egitea, araudian ezarritakoaren arabera aurkeztuko direla bermatzeko.*

- *Zuzeneko araubideko dirulaguntzen ematea Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.*

### Udaleko talde politikoendako diru-zuzkidurak

2022an, Udal-taldeendako diru-zuzkidurak 17.600 euro jo dute, xehetasun hauekin bat:

Udal-taldea	Zinegotzi kopurua	Diru-kopuru finkoa	Diru-kopuru aldakorra*	Diru-kopurua 2022an, guztira
Navarra Suma	5	100	5.000	5.100
Euskal Herria Bildu	4	100	4.000	4.100
PSN-PSOE	4	100	4.000	4.100
Cambiando Burlada – Burlata Aldatuz	2	100	2.000	2.100
Podemos	1	100	1.000	1.100
Geroa Bai	1	100	1.000	1.100
<b>Guztira</b>	<b>17</b>	<b>600</b>	<b>17.000</b>	<b>17.600</b>

\*Diru-kopuru aldakorra Udalaren talde politiko bakoitzeko kide kopuruarekiko proportzionala da

Zuzkidura horien zenbatekoa 2019ko uztailaren 25eko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez araututa dago. Ekarpen horiek aztertuta, honako alderdi esanguratsu hauek azpimarra ditzakegu:

- Zuzkidurak taldeek adierazitako banku-kontuetara transferitzen dira, eta ez da eskatzen taldeak dagokion alderdi politikoaz bestelako IFK eta banku-kontu propioa edukitzea. Hala ere, 2023an betekizun horiek eskatu ziren.

- Udalak jakinarazten duenez, Osoko Bilkurak ez du inoiz eskatu kontabilitate-aurkezpenik, nahiz eta taldeak behartuta dauden kontabilitatea mantentzera, hala dioenez Toki-araubidearen Oinarri buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak. Era berean, kontu-hartzailetzak ez du horri buruzko inolako egiaztapenik egin.

- Udalaren araudia zuzkiduren zenbatekoa zehaztera mugatzen da. Ez ditu zehazten taldeen betebeharrak kontabilitatearen eta kontuak ematearen arloan.

Aintzat hartu behar da diru-esleipen horiek izaera finalista dutela, eta xede dutela taldearen funtzionamendua erraztea haren udal jardura korporatiboan, eta, funts publikoak diren aldetik, horien erabilera justifikatuta eta fiskalizatuta egon behar duela. Ildo horretan, Toki-araubidearen Oinarri buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak udal-taldeak behartzen ditu berriazko kontabilitatea egitera eta hura Udalaren Osoko Bilkuraren eskura jartzera udalbatzak eskatutakoan.

- Diru-kopuru finkoak eta aldagarriak onesten dituen Osoko Bilkuraren akta Udalaren webgunean argitaratzen bada ere, dirulaguntza horien urteroko ematea eta banaketa gardentasun atarian argitaratu beharko litzateke.



Azterketa honen ondorioz, honako gomendio hauek egiten ditugu:

- *Udal-taldeen finantzaketaren justifikaziorako araubidea garatzea, zehaztuta hala haien zuzkidura ekonomikoen xedea nola formazko eta prozedurazko gainerako betekizunak, baita justifikazio-kontua jakitera ematea Osoko Bilkurari, gutxienez urtean behin, kontu-hartzailetzak hura fiskalizatu aurretik.*
- *Udal-taldeei egindako zuzkidura ekonomikoak Gardentasun Atarian argitaratzea, talde bakoitzari dagokion zenbatekoa zehaztuta.*

### 3.4 NEXT GENERATION FUNTSAK

Europar Batasunak estatu kideen multzoari baliabideak bideratzea erabaki zuen, Next Generation funtsen bitartez, COVID-19aren pandemiaren eragina samurtzeko eta ekonomiaren suspertze-ari bultzada emateko.

2023an, aipatu funtsek finantzaturako bi proiekturi dagozkion 812.624 € euro jaso ditu Udalak. Txosten hau egiteko egunera arte, honako hau da proiektu horietako bakoitzaren banakapena:

Elizgibela kiroldegia eraberritu, zabaldu eta hobetzeko lanak	2021	2022	2023	Guztira
Gastuak	2.580.620	19.733		2.600.353
Diru-sarrerak	-	-	806.414	806.414
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Modernizazio Digitala proiektua	2021	2022	2023	Guztira
Gastuak	741	8.034		8.775
Diru-sarrerak			6.210	6.210

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK****UDAL-TXOSTENA, BURLATAKO UDALAREN 2024. URTEKO EKITALDIARI BURUZKO FISKALIZAZIO-TXOSTENAREN ZIRRIBORROARI BURUZKOA.**

Burlatako Udalaren 2024ko ekitaldiari buruz Kontuen Ganberak egindako fiskalizazio-txostenaren zirriborroa jasota, eta Udal honek bertan jasotako gomendioak praktikan jartzea interesgarria ez ezik komenigarria ere jotzen duen arren, zenbait zehaztapen egin behar ditugu udal honen egoera ulertzen laguntzeko.

**Kontratazioari dagokionez:**

IV. puntuan, **IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN** atalari (5. or.) dagokionez,

adierazi behar dugu gastu arruntez bezainbatean lizitatu ez diren kontratuen zenbatekoaren zati handiena hornidura-kontratuari dagokiela (elektrizitatea, gasa, telefonia). 713.800 euro, 2. kapituluko aitorturiko betebeharrak garbieraren 3.578.729,02 euroetatik.

Kontratazio-arlo oso konplexuetako eta zailtasun tekniko handiko kontratuak dira, hala nola energia elektrikoa, gasa eta telefonia. Gaur egun, Udalak ez du gaitasunik horien lizitazioa baliabide propioekin kudeatu ahal izateko. 2022an, udal-teknikariek proposatuta, kontratazio zentralizatu batera jotzeko aukera planteatu zen, Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak lizitatu zuen esparru-akordio bat baliatuta, baina ez zen onartu. Aurten aukera hori berriz aztertuko da.

Telefonia- eta Internet-zerbitzuaren kasuan, Udalak aurretiazko lanak egin zituen 2023ko ekitaldian zehar balizko lizitazio bat egite aldera. Zehaztapen teknikoak egiteko kanpoko aholkularitza beharrezkoa da, eta Animsa entitate instrumentalari aurrekontua eskatu zaio zehaztapen teknikoak idazteko.

Bestalde, **GOMENDIO GARRANTZITSUENAK** izeneko VIII. puntuan, jakitera ematen da Udal honek horiei men egiten diela.

Jakitera ematen da kontratuak ez zirela **hiru hilez behin argitaratzen** hori ez zelako lehenesten eta informazioa arintasunez lortzeko zailtasun teknikoak zeudelako; izan ere, datuak eskuz bereizi behar ziren, eta hori lan zaila da. Hala ere, hilabete honetan jada argitaratuko dira 2023ko datuak, eta hiru hilez behin argitaratzea txertatu egin da antolaketa eta kudeaketa administratiboan.

Era berean, Animsa entitate instrumentalari eskaera bat egin zaio, tresna erabilgarri bat sor dezan informazio hori erraz eta automatikoki lortu ahal izateko, eta, horrela, gizakiek egindako akatsak gertatzeko arriskua ezabatzea.

Munta txikiko zenbatekoaren muga gainditzen duten **kontratuen lizitazioez** bezainbatean, alde batetik adierazi behar da 2019tik Udalak identifikatu egin zituela lizitatu behar ziren kontratuak eta espresuki lizitatu behar zirenak, eta zerrenda bat sortu zela lizitazioak lehenetsi eta antolatzeke eta espedienteak prestatzeko; hori horrela, eta Ganberak ikusi ahal izan duenez, urte hauetan kontratu asko erregularizatu dira. Beraz, Udala horretaz jabeturik zegoen; izan ere, txostenak aipatzen dituen kontratu gehienak duela zenbait urte sartuta daude erabiltzen den erregularizatu beharreko kontratuen zerrendan.

Bestalde, Udal honek jasota utzi nahi du Udalaren tamaina dela-eta munta txikikotzat hartuko liratekeen kontratu asko dituela, baldin eta urtea erreferentzia gisa hartzen badugu; aitzitik, urtez urte ematen diren zerbitzu edo hornidura errepikakorrak direnez, lizitazioaren xede izan behar dute. Zenbateko txikiko kontratazio mota horren konplexutasuna adierazi behar dugu, non eta esparru pribatuetan zeinetan prozeduren bidezko kontratazio publikoa ia ez den existitzen eta askotan enpresentzat interes gutxikoa den. Udal honek horrelako kontraturen bat lizitatu du, garabi-zerbitzuarena, esaterako. Lan administratibo handia ekarri du, baina eman gabe geratu da enpresen interes faltagatik.

Kontu-hartzaitzak ez du **eragozpen-oharrik** egin, baina egunerokoa eta aurrekontuak, aurrekontu-aldaketak eta kontuak onesten diren batzordeetan informatu egiten du kontratazioaren eta diruz lagundutako jardueren inguruko egoera guztiaz. Horrez gain, kontratu txikiak onesteko erabaki jakin batzuetan ohar-tarazpen hori ikus daiteke. Bai kontu-hartzaitza, bai idazkaritza, modu aktiboan ari dira hainbat kontraturen erregularizazioaren buru izaten, kontratu horiei lehenetasuna emanez. Hala dago jasota kontrol-dokumentuan, non adierazita baitaude lizitatu beharreko kontratuak. Administrazio publiko guztientzat muga berberak egotearen ondorioz, Udal honek aise gainditzen du kontratu txikirako ezarritako muga; hori horrela, kontratu irregularren lizitazioa amaitu ez bada ere, jada erregularizatutako kontratuen lizitazioa abiatu behar da.

2023an izapidetutako kontratu txikiak eta kontrafakturak argitaratzeko lortutako informazioa aprobetxatuta, kontratazioaren eta ikusitako irregulartasunen egoeraren berri emanen zaio Osoko Bilkurari, eta ohartaraziko da eskuratzei eta zerbitzuei dagozkien fakturak "konpondutzat" hartzen direla egoera hori zuzentzen ez den bitartean. Faktura bakoitzean banakako eragozpen-oharrak emateak araudia zorrotz betetzea ekarriko luke, baina, era berean, administrazio-lan ikaragarria. Kontu-hartzaileak uste du egokiagoa dela denbora eta ahalegina bideratzea kontratazioak erregularizatzen eta pleguak prestatzen, eta ez banakako eragozpen-oharrak ematera, Udalean agintean egon diren udalbatza desberdinek egoera hori ezagutzen eta onartzen baitute.

### **Langileriari dagokionez:**

3. gehigarria.

Langileriari buruzko (3.1 puntua) **BETETZEAREN FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZEZ** bezainbatean, hauxe diogu:

Ganberak plantillako datuak lortu ahal izateko izan dituen zailtasunak gorabehera, aipatu nahi dugu Burlatako Udalak langile asko eta egoera konplexuak dituela, eta ez dela inolako irregulartasunik edo akatsik egon. Aurrekontu arrunta ez onesteak konplexutasun hori areagotu egiten du datuak ateratzeko orduan.

Abenduaren 31n dauden langileen zerrenda argitaratzeko aukera aztertuko da, plantilla organikoa onetsi ez bada.

18. orrialdean 33 enplegatu publikoren **lanpostu-jabetza** aipatzen da. Hala ere, lanpostuak jarri beharko luke, eta ez enplegatuak. Kopurua ez da zuzena: 36 dira, ez 33. Lanpostuen zehaztapena azaltzea proposatzen da. Hauxe da informazio osoa:

“Txosten hau idazteko garaian, deialdietan sartutako 39 lanpostuetatik 36 egonkortzearen ondorioz bete dira: 36 merezimendu-lehiaketa bidez, eta 3 oposizio-lehiaketa bidez. Aurreikuspenen arabera, 2024ko martxotik urrira bitarte amaituko dira gainerako 3 lanpostuen egonkortze-prozesuak: 1 merezimendu-lehiaketa bidez, eta 2 oposizio-lehiaketa bidez”.

**Behin-behineko izendapenez** bezainbatean, aipatu behar dugu behin-behinekotasun ehuneko altua dagoenez, zerbitzuaren beharrei plantillako langileekin arreta emateko xedez, Burlatako Udalak soldata-osagarriak esleitu dizkiela haien maila berean goragoko kategoria bateko eginkizunak betetzen ari ziren pertsonen, 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 32. artikuluan ezarritakoaren arabera. Behin-behineko izendapen guztiak Alkatetzaren ebazpen bidez eman dira, dagokion zerbitzu-burutzak txostena egin ondoren; beraz, guztiak txosten tekniko bidez bermatuta daude, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 2022ko plantilla organikoarekin batera zeuden arau osagarrien testuan. 2022ko plantilla organikoarekin batera argitaratutako izendapen guztiak amaitu dira behin ebatzita merezimendu-lehiaketak, kategoriaz igotzeko deialdiak eta egonkortze-prozesuak; beraz, behin-behineko izendapenak aldi baterako erabili ziren, aldi baterako kontratazio kopuru handiaren ondorioz eta araudiarekin bat. Txostenean adierazten da hauteman dela horietako bat ez datorrela bat 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 32. artikuluan ezarritako kasuarekin. Kasu horretan, izendapena ere aldi baterako izan zen, proiektu zehatz bat egiteko, eta maila bereko eta goragoko kategoria bateko eta ardura handiagoko lan bat zen. Lan horrek —Udalaren bideragarritasunaren eta kostuen azterlana— eskatzen zuen Udalak bere osotasunean ezagutzea eta udal tresna informatikoak erabiltzea. Merkatuan ez zen aurkitu aldi baterako proiektu hori (jada amaitua) garatzeko gai izanen zen enpresarik. Jarraitzen du eta ez da bidezkoa horretarako lanpostu bat sortzea plantillan.

### **Diruz lagundutako jarduerari dagokionez:**

22. orrialdean, Dirulaguntzen laginaren azterketa atalean, egiaztatutako akatsez bezainbatean, Dirulaguntzak kudeatzen dituzten alorrak arduratzen dira kasu guztietan egiaztapen hori egiteaz, baina argi geratu da kasu guztietan ez dela horri buruzko idatzizko txostenik ematen edo justifikazio-dokumentazio guztia ez zela espediente elektronikoan sartu, baina bi laginetan argi geratu da dirulaguntzak behar bezala bideratu direla aurreikusitako xedera. Dena den, antolaketa-neurriak hartuko dira dirulaguntzen espediente guztietan jasota gera daitezen dagozkien egiaztagirak.

Dirulaguntzen ematea argitaratzeari dagokionez, aginduak eman dira 2022ko eta hurrengo urteetako dirulaguntza izendun guztiak argitaratzeko.

**Talde politikoei emandako dirulaguntzez bezainbatean:**

Talde politikoei emandako dirulaguntzez bezainbatean, 2024ko aurrekontua egiten ari garela aprobetxatuz, gobernu-taldeak konpromisoa hartzen du aurrekontua betearazteko oinarrietan jasotzeko dirulaguntza horiek justifikatzeko prozedura.

Fiskalizazio-txostenaren zirriborroa dela-eta ohar gehiagorik egiteko ez dugu; zure eskura nago Burlatako Udalak dauzkan baliabideak hobetu eta optimizatzeko elkarrekin lan egiteko, behar den guztietan. Agur bero bat.

Burlatan, 2024ko otsailaren 5ean.

Alkatea: Berta Arizkun Gonzalez andrea

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA**

Eskerrak ematen dizkiogu Burlatako Udaleko alkateari aurkeztutako alegazioengatik. Horiek txosten honetan jasotzen dira, ganbera honek emandako erantzunarekin batera.

Onartu egin da enplegu publikoaren behin-behinekotasunari aurre egiteko egonkortzearen on-doriozko prozesuetan lanpostuaz jabetu diren langileen kopurua zuzentzeari buruzko alegazioa. Gainerako alegazioak egindako fiskalizazioaren azalpena dira, eta ez dute horren edukia aldatzen; beraz, behin-behineko txostena behin betiko bihurtzeko erabakia hartu da.

Iruñean, 2024ko otsailaren 6an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador





